

# Durangoko XXXIV. Musika Hamabostaldia

## 1. KONTZERTUA: EUSKADIKO ORKESTRA “Ondinaren Magia”

Familientzako emanaldia.

Ondinak misterioaren eta herri-kondairen parte dira. Greziar mitologian, Mediterraneoan bizi ziren uretako ninfei deitzen zitzaien “ondinak”.

Ikuskizun hau hiru instrumenturen bidez interpretatuko da: itsas-uhinak eta sakonerak irudikatzen dituen harpa, haizearen misterioak kontatzen dizkigun flauta, eta lurraz eta haren misterioez hitz egiten digun biola. Hiru instrumentu hauekin magia eta musika uztartuko ditugu maitagarriek babesten gaituzten fantasiako mundu horretan sartzeko.

Kontzertu honetarako propio sortutako kontakizun baten bidez, eta Duboit, Jolivet, Ravel eta Debussyren musikekin, gure zentzumenekin jolastuko gara arteez gozatzeko plazer hutsagatik.

Partaideen zerrenda:

Magia: Txan Magoa

Biola: Maite Abasolo

Flauta: Ander Erburu

Harpa: Iván Bragado

Aurkezlea: Ana Eguiazabal

Gidoia: Mikel Cañada

4€ (Bazkideak eta Bartolome Ertzillako ikasleak: 3 €)

San Agustin Kultur Gunea

Igandea, 2023ko azaroak 5, 18:00

Iraupena 40 min

Euskeraz

## 2. KONTZERTUA: KUTTUNE TALDEA

Kuttune Nerea Quincoces perkusionista eta abeslariak zuzendutako folk talde berri bat da.

Kalitatezko zuzeneko hau 9 musikari profesionalen osatuta dago eta hainbat soinu eta instrumentuz gozatzeko aukera emango dizu.

Bere errepertorioa Euskal Herriko folklorea inspiratuta dago, inguruko musiken kutsuarekin eta munduko hainbat lekutako soinuekin uztartuta.

Taldearen sonoritatea hainbat artxibo, kantutegi eta landa-grabaziori buruzko ikerketa sakon batean oinarritzen da, baita gaur egungoa eta antzinakoa batzen dituzten tinbre eta testura berrien bilaketan ere.

Partaideen zerrenda:

Ahotsa, perkusioa, moldaketak eta zuzendaritza: Nerea Quincoces

Ahotsa: Charlie Santiago

Flauta eta ahotsak: Irene Gil

Saxo tenorea: Aingeru Torre

Klarineteak eta alboka: Pablo Dávila

Baxu elektrikoa eta moldaketak: Jordi Arcusa

Pianoa eta ahotsak: Tania Loza

Gitarra eta ahotsak: Pablo Bueno

Bateria: Unai Olabarri

8 € (Bazkideak eta Bartolme Ertzillako ikasleak: 6 €)

San Agustin Kultur Gunea

Larunbata, 2023ko azaroak 11, 19:00

Iraupena 75 min

### **3. KONTZERTUA: SANT ANDREU JAZZ BAND & ÈLIA BASTIDA**

Sant Andreu Jazz Band, 7 eta 20 urte bitarteko gazteek osatzen duten Bartzelonako jazz musika banda bat da, Joan Chamorrok zuzendua. 17 urte dituen proiektua da eta 70 musikari baino gehiago igaro dira bertatik. Musikari horietako batzuek nazioarteko proiektzio handia dute.

Bere errepertorioa jazzaren historian zehar ibilaldi bat da, bere garaian Stéphane Grappelli edo Nina Simone bezalako musikari garrantzitsuek grabatutako zenbait abesti gogora dakartzana.

Mundu osoan ezaguna da SAJB, jazzaren arloan gazteekin egindako lanagatik eta 30 disko baino gehiago grabatu eta Europa osoan kontzertuak eman izanagatik.

Partaideen zerrenda:

Zuzendaria: Joan Chamorro.

Artista gonbidatua, biolina eta saxo tenorea: Èlia Bastida.

SAJBko musikariak: Sander Theuns, Pere Company, Shanti Ming, Koldo Munné, Lola Peñaranda, Andreu Romero, Noa Abike Bazuaye, Bernat Benavente, Martí Costalago, Max Munné, Gerard Peñaranda, Elsa Armengou, Martha Vives, Luc Martín, Perot Rigau, Claudia Rostey, Hugo Vlach, Anna Ndiaye, Pau García, Asier Vázquez, Nils Theuns, Blai Forns, Didac Moya, Joan Maticàs, Jordi Herrera, Mateu Teixidó.

10 € (Bazkideak eta Musika Eskolako ikasleak 7,50 €)

San Agustin Kultur Gunea

Larunbata, 2023ko azaroak 18, 19:00  
Iraupena 60 min

#### **4. KONTZERTUA: JUDITH JÁUREGUI**

Nortasuna, dotorezia eta argia dira Judith Jáuregui pianistaren ezaugarri nagusiak. International Piano aldizkari ingelesak honela deskribatzen du: “intuizio sortzaile duna”, “artista irudimentsua, bakarkako interprete harrigarria, adierazpenaren heldutasunagatik txundituta uzten zaituena”. Piano News hedabide alemaniarrarentzat, “bere interpretazio bikainaz gain, benetan zerbait esateko duen piano-jotzaile bat da”.

Azken denboraldietan harrera beroa izan du nazioartean erreferentzia diren areto eta jaialdietan, hala nola Madrilgo Auditorio Nazionalean, Bartzelonako Palau de la Músican, Parisko Louvre Auditorioan, Flagey-n (Brusela), Berlingo Konzerthaus-en, Tokioko Suntory Hall-ean, Pekingo NCPAn, Bogotako Antzoki Nagusian, Alemaniako Schloss Elmau-n, Suitzako Murten Classics-en edo Frantziako La Roque d’Antheroneko Piano Jaialdian, besteak beste.

W.A. Mozart, R. eta C. Schumann, F. Chopin, F. Liszt eta F. Schuberten obrekin osatutako kontzertua emango du.

Partaideen zerrenda:  
Pianoa: Judith Jáuregui

10 € (Bazkideak eta Bartolome Ertzillako ikasleak 7,5 €)

San Agustin Kultur Gunea  
Ostirala, 2023ko azaroak 24, 20:00  
Iraupena 90 min.